



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2011ko urtarrilaren 25a

3. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Alesbesko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2008ko ekitaldiko, Comptos Ganberak egina (2.or.).
- Fiskalizazio txostena, Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluaren 2009ko ekitaldiko kontuei buruzkoa, Comptos Ganberak egina (18. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

**Alesbesko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2008ko ekitaldikoa,
Comptos Ganberak egina.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko irailaren 6an eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Alesbesko Udalari buruz eginiko fiskalizazio-txostena, 2008ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2010eko irailaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Alesbesko Udalari buruzko fiskaliza-
zio txostena, 2008ko ekitaldikoa,
Comptos Ganberak egina**

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (2. or.).
- II. Helburua (3. or.).
- III. Norainokoa (3. or.).
- IV. Iritzia (4. or.).
 - IV.1. Udalaren eta bere erakunde autonomoen kontu orokorra, 2008ko ekitaldikoa (4. or.).
 - IV.2. Legezketasuna (4. or.).
 - IV.3. 2008ko abenduaren 31ko egoera ekonomiko-finantzarioa (4. or.).
- V. 2008ko kontu orokorraren laburpena (6. or.).
 - V.1. Alesbesko Udala (6. or.).
 - V.2. "Fernando Calahorra" Musika Eskola (9. or.).
 - V.3. "Virgen del Portal" zaharren egoitza (10. or.).
- VI. Iruzkina, ondorioak eta gomendioak (11. or.).
 - VI.1. Alderdi orokorrak (11. or.).
 - VI.2. Udaleko langile-gastuak (11. or.).

VI.3. Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak (12. or.).

VI.4. Inbertsioak (12. or.).

VI.6. Inbentarioa-lbilgetua (13. or.).

VI.7. Aurrekontuko diru-sarrerak (13. or.).

VI.8. Gorabeherak (13. or.).

VI.9. Hirigintza (13. or.).

VI.10. "Virgen del Portal" zaharren egoitza (14. or.).

1. eranskina. Ratioak (17. or.).

I. SARRERA

Bere jarduera-programari jarraikiz, Comptos Ganberak udalaren eta bere erakunde autonomoen –"Virgen del Portal" Zaharren Egoitza eta "Fernando Calahorra" Musika Eskola– 2008ko kontu orokorraren fiskalizazioa egin du.

Alesbesko Udalak, 2007ko azaroaren 22an, Comptos Ganberari eskatu zion "Virgen del Portal" Zaharren Egoitza erakunde publikoaren auditoria bat (2003-2007) egiteko. Urte bereko abenduaren 5ean, jakinarazi zen aurreikusita zegoela udal horretako 2008ko ekitaldiko finantza-kudeaketaren eta kontuen berrikuspenera, eta une horretan eginen zela udal erakunde publiko horren gaineko azterketa.

Alesbesko udalerriak 4.643 hektareako hedadura eta 2.988 biztanle ditu (2008ko urtarrilaren 1ean). 2008ko abenduaren 31n, udalaren eta bere erakunde autonomoen zifra adierazgarrienak honakoak dira:

Entitatea	Aitortutako obligazioak	Aitortutako eskubideak	Langileak, 2008-12-31n
Udala	4.531.528	4.386.786	24
“Fernando Calahorra” Musika Eskola	79.328	73.333	11
“Virgen del Portal” Zaharren Egoitza	903.014	916.554	22

Udala zenbait mankomunitatetan sartuta dago: Goi Erriberako Hiri-hondakin Solidoen Mankomunitatea, Oinarritzko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea eta Ebroko Kirol Mankomunitatea.

2008ko ekitaldian Alesbesko Udalarari aplikatzen izandako araubide juridikoa honako hau da, funtsean:

- Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea.
- Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea.
- Toki Araubidearen Oinarriak arautzeko 7/1985 Legea.
- 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina onesten duena.
- Kontratu Publikoari buruzko 6/2006 Foru Legea, 1/2007 Foru Legeak toki entitateari buruz ezarritako berezitasunekin.
- Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra.
- 35/2002 Foru Legea, Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzkoa.
- Kontabilitatearen eta aurrekontuen arloan, araubide juridikoa ezartzen dutenak 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 foru dekretuak dira, zeinak Nafarroako Toki Administrazioarako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta kontabilitateari buruzkoak baitira.
- Udalaren 2008ko aurrekontuaren exekuzio oinarriak eta gainerako barne araudia.

Txostenak sei atal ditu, sarrera hau barne. Bigarren atalean txostenaren helburuak agertzen dira. Hirugarrenean, egindako lanaren norainokoa azaltzen da. Laugarrenean, gure iritzia jasotzen dugu Kontu Orokorrari, legezketasunari eta finantza-egoerari buruz. Bosgarren atalean, laburpen bat jaso dugu udalak eta erakunde autonomoekin eginiko finantza-egoerei buruz. Seigarren atalean, erakundearen antolaketa eta barne-kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun iruzkin, ondorioztapen eta gomendioak biltzen dira, arloz arlo.

Alesbesko Udaleko eta haren erakunde autonomoetako langileei eskerrak ematen dizkiegu lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Alesbesko Udalaren 2008ko ekitaldiko kontu orokorraren erregulartasun-fiskalizazioa egin dugu.

Txostenaren helburua da honako hauei buruzko gure iritzia adieraztea:

a) Alesbesko Udalaren 2008ko kontu orokorrak fidelki islatzen ote duen, alderdirik behinenetan, entitatearen ekonomia- eta finantza-egoera, aurrekontuaren likidazioa eta lorturiko emaitzak, eta orokorki onartuak diren kontabilitate-printzipio eta -arauei jarraituz prestatu ote den eta horiek uniformetasunez aplikatu diren.

b) Alesbesko Udalak eta haren menpeko erakunde autonomoek 2008an aurrera eramandako jarduerari aplikatzen zaion legedia zein neurritan bete den.

c) Alesbesko Udalaren eta haren mendeko erakunde autonomoen 2008ko abenduaren 31ko finantza-egoera.

Txostenarekin batera, beharrezkoak diren gomendioak eman ditugu, entitatearen kudeaketa ekonomiko-finantzarioa hobetze aldera.

III. NORAINOKOA

Comptos Ganberak Alesbesko Udalaren eta haren erakunde autonomoen –“Fernando Calahorra” Musika Eskola eta “Virgen del Portal” Zaharren Egoitza– Kontu Orokorraren fiskalizazioa egin du. Fiskalizazio horrek, besteak beste, honako osagaiak dauzka:

- Toki-entitatearen kontua eta haren erakunde autonomoena.
- Kontu orokorraren eranskinak.

Hona hemen udalak aurkezturiko finantzen egoera-orri nagusiak:

- Aurrekontu-betetzearen egoera-orria, ekitaldiko aurrekontu-emaizta eta entitatearen eta bere erakunde autonomoen diruzaintza-gerakina.

Kontu orokorrak ez du egoeraren balantzea biltzen, zeren eta aplikazio informatikotik lortutakoak ez baitie erantzuten orokorki onartutako kontabilitate-printzipioei. Ez ditu aurkeztu, ezta ere, udalaren beraren eta haren erakunde autonomoen –musika eskola eta zaharren egoitza– kontu bateratuak.

Udalak eta haren erakunde autonomoek aplikaturiko kontabilitate-araubidea irailaren 21eko 272/1998 Foru Dekretuaren bidez onetsitako kontabilitate-instrukzio orokorrean zehaztuta dago.

Lana gauzatu da Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Comptos Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan jasotako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta araei jarraituz, eta azterlanaren helburuen eta ingurubarren arabera beharrezkotzat jo ditugun hauta-proba edo prozedura tekniko guztiak aplikatuz. Prozedura horien artean erabili da laginen teknika, edo kontusail edo eragiketa zehatz hautatuak berrikustekoa.

Zehazki, udalari eta bere erakunde autonomoiei dagokienez, berrikusi dira bai beren aurrekontuen eta finantzen egoera-orrien edukia eta koherentzia, bai aplikaturiko oinarritzko prozedurak; eta ebaluatu dira antolaketa, kontabilitate eta barne kontroleko oinarritzko alderdiak.

IV. IRITZIA

Egin dugun lanaren norainokoarekin bat, Alesbesko Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2008ko ekitaldiko Kontu Orokorra aztertu dugu. Udalaren erantzukizuna da kontuaren prestaketa eta edukia.

Egindako berrikuspenaren ondorio gisa, honako iritzi hau adierazi behar dugu:

IV.1. UDALAREN ETA BERE ERAKUNDE AUTONOMOEN KONTU OROKORRA, 2008ko EKITALDIKOA

Udalaren eta haren erakunde autonomoen kontu orokorrak ez du jasotzen egoerari buruzko balantzea, zeren eta aplikazio informatikoak ez baitu hura behar bezala prestatzen.

Aurreko lerrokadan aipaturikoaren ondorioak alde batera utzita, udalaren eta haren erakunde autonomoen 2008ko ekitaldiko kontu orokor ez-bateratuak fidelki islatzen ditu alderdirik behinengat gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuen likidazioa eta aurrekontuen emaitzak, aurreko ekitaldian aplikaturikoekin bat datozen eta orokorki onartuak diren kontabilitate-printzipio eta -arauei jarraituz.

IV.2. LEGEZKOTASUNA

Eginiko lanaren norainokoaren neurrian, esan daiteke udalaren eta bere erakunde autonomoen jarduera ekonomiko eta finantzarioa, oro har, legezkontasun printzipioari jarraituz egin dela.

IV.3. 2008ko ABENDUAREN 31ko EGOERA EKONOMIKO-FINANTZARIOA

Alesbesko Udalak, 2008an, funtzionamendu gastuak eta haren zorpetzea –2,6 milioi euro– sortzen duen finantza-zama finantzatzeko bidea eman dioten diru-sarrerak lortu ditu. Kopuru horren barruan, 560.000 euroko mailegua dago, 2008an itundua, ekitaldi horretan eginiko 1,9 milioi euroko inbertsioen zati bat finantzatzeko.

Ondoren, udalaren eta musika eskola eta zaharren egoitza erakunde autonomoen 2008ko ekitaldiari buruzko datu ekonomiko batzuk adierazi ditugu:

- Honakoak dira udalak “Fernando Calahorra” Musika Eskolak eta “Virgen del Portal” Zaharren Egoitzak 2008ko ekitaldirako duten hasierako aurrekontua eta behin betiko aurrekontua:

	Udala	Musika eskola	Zaharren egoitza
Hasierako aurreikuspenak	5.750.878	74.000	716.263
Behin betiko aurreikuspenak	5.901.042	74.000	909.199

2007ko ekitaldiari dagokionez, udalaren behin betiko aurrekontuak ehuneko 51 egin du gora, 2007an 3,9 milioi eurokoa izatetik 2008an 5,9 milioi eurokoa izatera pasa baita. Zaharren egoitzaren aurrekontuak ere ehuneko 49 egin du gora.

- Honakoak izan dira ekitaldian aitortutako betebeharrak eta eskubideak, bai eta haien exekuzio-eta betetze-mailak ere:

	Udala	Musika eskola	Zaharren egoitza
Aitortutako betebeharrak	4.531.528	79.328	903.014
Betetzea (%)	% 77	% 107	% 99
Aitortutako eskubideak	4.386.786	73.333	916.554
Betetzearen ehuneko	% 74	% 99	% 101

Udalari dagokionez, aitortutako betebeharrak ehuneko 30 egin dute gora 2007koekin alderatuta; nabarmentzekoa da inbertsioen igoera, ehuneko 98 egin baitute gora (1.918.588 euro 2008an eta 968.201 euro 2007an). Aitortutako eskubideak ere ehuneko 41 egin dute gora. Horren justifikazioa izan dira, neurri batean, finantza-entitate batekin egindako mailegu bat, 560.000 eurokoa, eta jasotako kapital-transferentzien kopuru handiagoa (1.042.035 euro 2008an eta 146.113 euro 2007an); azken horiek inbertsioekin daude lotuta.

Halaber, Zaharren Egoitzan eginiko inbertsioek -154.818 eurokoak izan dira- ehuneko 26 egin dute gora 2007koekin alderatuta. Haien finantzatzeko, 150.000 euroko mailegu bat hartu da.

- Aurrekontu-emaizta doitu negatiboa da bai Udalarentzat, bai musika eskolarentzat: 147.023 euro eta 5.995 euro, hurrenez hurren. Zaharren egoitzarena positiboa da: 13.540 euro.

- Udalaren 2008ko aurrezki garbia positiboa da, zeren eta diru-sarrera arruntek 171.439 euotan

gainditu baitituzte funtzionamendu-gastuak eta finantza-gastuak. Alabaina, aurrezki horrek ehuneko 38 egin du behera, 2007. urtearekin alderatuta (274.484 euro).

Musika eskolak eta zaharren egoitzak 4.394 euroko eta 44.578 euroko aurrezki garbi negatiboa dute.

- Udalaren zorpetze-maila 2008an diru-sarrera arrunten ehuneko 8,86koa da (2007an, ehuneko 9,60 izan zen); zorpetze-muga, berriz, ehuneko 15,02koa da (2007an, ehuneko 19,46koa izan zen). Udalaren guztizko diruzaintzako gerakina, zeina 2007an 77.759 euroan positiboa baitzen, negatiboa izan da 2008ko ekitaldian, hain zuzen ere 101.544 euroan; gauza bera gertatu da gastu orokorretarako diruzaintza-gerakinarekin, zeina 163.908 euotan negatiboa baita. Erakunde autonomoek, 2007an bezala, diruzaintzako gerakin negatiboa izaten jarraitzen dute; hona zenbaterakoak:

	Udala	Musika eskola	Zaharren egoitza
Diruzaintzako gerakina	-101.544	-6.501	-58.365
Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina	-163.908	-6.501	-58.365

- Udalak 2008ko abenduaren 31n duen epe luzeko zorra 2.683.228 eurokoa da; zaharren egoitzarena, berriz, 150.000 eurokoa. Halaber, udalak

hitzartuta dauzka, diruzaintzako eragiketa gisa, 150.000 euroko kreditu-kontu bat eta kreditu zirkulazio bat, zeinetik jada 117.964 euro erabili baititu.

V. 2008ko KONTU OROKORRAREN LABUR-PENA

Alesbesko Udalak ez du 2008ko Kontu Orokor bateraturik egin; horrela, ba, finantzen egoera-orri banakako hauek erantsi ditugu:

V.I. ALESBESKO UDALA

V.1.1. Aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria

Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera

Gastuen kapituluak	Hasierako kredituak	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspenak	Aitortutako betebeharrak	Betea, %	Ordainutakoa (%)	Ordainketak (%)	Ordaintzeko dagoena
1. Langile gastuak	912.652	49.500	962.152	961.952	% 100	859.680	% 89	102.272
2. Ondasun arruntan eta zerbitzuen gastuak	1.057.746	41.989	1.099.735	1.084.902	% 99	898.611	% 83	186.291
3. Finantza-gastuak.	113.725		113.725	112.778	% 99	112.742	% 100	36
4. Transferentzia arruntak	320.532	-2.300	318.232	315.566	% 99	247.417	% 78	68.149
5. Inbertsio errealak	3.152.779	97.724	3.250.503	1.918.588	% 59	580.459	% 30	1.338.129
6. Kapital transferentziak	50.500	-36.750,00	13.750	4.328	% 31			4.328
7. Finantza-pasiboak	142.944		142.944	133.414	% 93	133.414	% 100	
Gastuak, guztira	5.750.878	150.163	5.901.041	4.531.528	% 77	2.832.323	% 62	1.699.205

Diru-sarrerak kapitulu ekonomikoen arabera

Diru-sarreraren kapituluak	Hasierako kredituak	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspenak	Aitorturiko eskubide garbiak	Betea, %	Kobratutakoa	Kobrantsak (%)	Kobrantszeko dagoena
1. Zuzeneko zergak	650.000		650.000	676.309	% 104	631.134	% 93	45.175
2. Zeharkako zergak	450.000		450.000	117.144	% 26	29.213	% 25	87.931
3. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	467.799		467.799	502.682	% 107	447.991	% 89	54.691
4. Transferentzia arruntak	1.038.808	22.389	1.061.197	1.059.589	% 100	942.164	% 89	117.425
5. Ondare dirusarrerak eta aprob. kom.	323.920		323.920	424.327	% 131	307.912	% 73	116.415
6. Inbertsio errealak besterentzea	1.178.800		1.178.800	4.700		4.700	% 100	
7. Kapital-transferentziak	1.167.551	50.016	1.217.567	1.042.035	% 86	164.989	% 16	877.046
8. Aktibo finantzarioak		77.758	77.758					
9. Pasibo finantzarioak	474.000		474.000	560.000	% 118			560.000
Diru-sarrerak, guztira	5.750.878	150.163	5.901.041	4.386.786	% 74	2.528.103	% 58	1.858.683

V.1.2 Aurrekontu-emaitza

Kontzeptua	2007	2008
Aitortutako eskubideak	3.096.213	4.386.664
(Aitorturiko betebeharrak)	-3.490.347	-4.531.528
Aurrekontu-emaitza	-394.134	-144.864
(Finantzaketaren desbideratze positiboak)	9.428	79.834
Finantzaketaren desbideratze negatiboak	173.220	
Diruzaintzako gerakinarekin finantzatutako gastuak	77.725	77.676
Aurrekontu-emaitza doituia	-152.617	-147.022

V.1.3. Diruzaintzako gerakinaren egoera-orria 2008ko abenduaren 31n

Kontzeptua	2007	2008
+ Kobratzeko dauden eskubideak	616.293	1.933.454
Diru-sarreraren aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	558.772	1.858.561
Diru-sarreraren aurrekontua: itxitako ekitaldiak	139.168	187.780
Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	33.777	28.171
(Dirubilketa zaileko eskubideak)	-115.424	-141.058
- Ordaintzeko dauden betebeharrak	541.328	1.927.978
Gastu-aurrekontua: aurtengo ekitaldia	434.354	1.699.205
Gastu-aurrekontua: itxitako ekitaldiak	21.513	24.000
(Aplikatzeko dauden gastuak)	-2.835	-2.835
Aurrekontuz kanpoko gastuak	88.296	207.608
+ Diruzaintzako funts likidoak	2.794	-107.020
= Diruzaintzako gerakina, guztira	77.759	-101.544
Finantzaketa atxikia duten gastuen diruzaintzako gerakina		62.364
Baliabide atxikien diruzaintzako gerakina		
Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina	77.759	-163.908

V.1.4. 2007-2008 ratioak

Adierazlea	2007	2008
Diru-sarreraren betetze-maila	% 79,35	% 74,34
Gastuen betetze-maila	% 89,45	% 76,79
Kobrانتzen betetzea	% 81,95	% 57,63
Ordainketen betetzea	% 87,56	% 62,50
Zorpetze-maila	% 9,60	% 8,86
Zorpetze-muga	% 19,46	% 15,02
Zorpetze-ahalmena	% 9,86	% 6,16
Aurrezpen garbia	% 9,86	% 6,16
Langileriaren indizea	% 26,46	% 21,23
Inbertsioaren indizea	% 27,74	% 42,34
Diru-sarrerak biztanleko	1.036	1.444
Gastuak biztanleko	1.168	1.49
Diru-sarrera arruntak biztanleko	931	915
Gastu arruntak biztanleko	785	815
Tributu bidezko dirusarrerak biztanle bakoitzeko	536	427
Finantza-zama biztanleko	89	81
Zorra biztanleko	755	884

V.2. "FERNANDO CALAHORRA" MUSIKA ESKOLA

V.2.1. Aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria

Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera

Gastuak	Hasierako kredituak	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspenak	Aitorturiko betebeharrak garbiak	Betea, %	Ordainutakoa (%)	Ordainketak (%)	Ordaintzeko dagoena
1. Langile gastuak	60.397		60.397	65.775	% 109	63.919	% 97	1.856
2. Gastu arruntak ondasun eta zerbitzuetan	11.553		11.553	11.352	% 98	10.209	% 90	1.143
3. Finantza-gastuak	7.500		750	600	% 80	600	% 100	-
6. Inbertsio errealak	1.300		1.300	1.601	% 123	1.601	% 100	-
Gastuak, guztira	74.000		74.000	79.328	% 107	76.329	% 96	2.999

Diru-sarrerak kapitulu ekonomikoen arabera

Diru-sarrerak	Hasierako kredituak	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspenak	Aitorturiko eskubide garbiak	Betea, %	Kobratutakoa	Kobrantzak (%)	Kobratzeko dagoena
3. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrerak batzuk	38.000	-	38.000	41.503	% 109	40.999	% 99	504
4. Transferentzia arruntak	36.000	-	36.000	31.830	% 88	31.830	% 100	-
Diru-sarrerak, guztira	74.000	-	74.000	73.333	% 99	72.829	% 99	504

V.2.2. Aurrekontu-emaizta

Kontzeptua	2007	2008
Aitortutako eskubideak	66.902	73.333
(Aitorturiko betebeharrak)	-70.316	-79.328
Aurrekontu-emaizta	-3.414	-5.995
(Finantzaketaren desbideratze positiboak)		
Finantzaketaren desbideratze metatu negatiboa		
Diruzaintzako gerakinarekin finantzatutako gastuak		
Aurrekontu-emaizta doitua	-3.414	-5.995

V.2.3. Diruzaintzako gerakinaren egoera-orria 2008ko abenduaren 31n

Kontzeptua	2007	2008
+ Kobratzeko dauden eskubideak	4.236	676
Diru-sarreraren aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	4.071	504
Diru-sarreraren aurrekontua: itxitako ekitaldiak	1.713	1.901
Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	8	78
(Diru-bilketa zaileko eskubideak)	-1.556	-1.807
- Ordaintzeko dauden betebeharrak	8.167	11.521
Gastu-aurrekontua: aurtengo ekitaldia	6.824	2.999
Gastu-aurrekontua: itxitako ekitaldiak	851	2.375
(Aplikatzeko dauden gastuak)	-1	-1
Aurrekontuz kanpoko gastuak	493	6.148
+ Diruzaintzako funts likidoak	3.675	4.344
= Diruzaintzako gerakina, guztira	-256	-6.501
Finantzaketa atxikia duten gastuen diruzaintzako gerakina		
Baliabide atxikien diruzaintzako gerakina		
Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina	-256	-6.501

V.3. "VIRGEN DEL PORTAL" ZAHARREN EGOITZA

V.3.1. Aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria

Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera

Gastuak	Hasierako kredituak	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspenak	Aitorturiko betebeharrak garbiak	Betea, %	Ordainutakoa (%)	Ordainketak (%)	Ordaintzeko dagoena
1. Langile gastuak	529.541	14.650	5.441	541.502	% 100	522.146	% 96	19.356
2. Gastu arruntak ondasun eta zerbitzuetan	175.222	25.850	201.072	199.925	% 99	178.900	% 89	21.025
3. Finantza-gastuak	2.500	4.500	7.000	6.769	% 97	6.769	% 100	-
6. Inbertsio errealak	9.000	147.936	156.936	154.818	% 99	154.818	% 100	-
Gastuak, guztira	716.263	192.936	909.199	903.014	% 99	862.633	% 96	40.381

Diru-sarrerak kapitulu ekonomikoen arabera

Diru-sarreraren kapituluak	Hasierako kredituak	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspenak	Aitorturiko eskubide garbiak	Betea, %	Kobratutakoa	Kobrantzak (%)	Kobratzeko dagoena
3. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	6.480	-	648.500	643.420	% 99	643.420	% 100	-
4. Transferentzia arruntak	593	-	58.663	60.000	% 102	60.000	% 100	-
5. Ondare dirusarrerak eta aprob. kom.	100	-	100	198	% 198	198	% 10	-
7. Kapital-transferentziak	9.000	62.936	71.936	62.936	% 87	20.000	% 32	42.936
9. Pasibo finantzarioak	-	130.000	130.000	150.000	% 115	150.000	% 100	-
Diru-sarrerak, guztira	716.263	192.936	909.199	916.554	% 101	873.618	% 95	42.936

V.3.2. Aurrekontu-emaizta

Kontzeptua	2007	2008
Aitortutako eskubideak	692.503	916.554
(Aitorturiko betebeharrak)	-714.598	-903.014
Aurrekontu-emaizta	-22.095	13.540
(Finantzaketaren desbideratze positiboak)		
Finantzaketaren desbideratze negatiboak		
Diruzaintzako gerakinarekin finantzatutako gastuak		
Aurrekontu-emaizta doitua	-22.095	13.540

V.3.3. Diruzaintzako gerakinaren egoera-orria 2008ko abenduaren 31n

Kontzeptua	2007	2008
+ Kobratzeko dauden eskubideak	-46.140	42.936
Diru-sarreraren aurrekontua: aurtengo ekitaldia	188	42.936
Diru-sarreraren aurrekontua: itxitako ekitaldiak	10.392	87
Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak (Diru-bilketa zaileko eskubideak)	-5.196	-87
(Aplikatzeko dauden diru-sarrerak)	-51.524	
- Ordaintzeko dauden betebeharrak	52.562	61.674
Gastu-aurrekontua: aurtengo ekitaldia	38.305	40.381
Gastu-aurrekontua: itxitako ekitaldiak	417	8.947
Diru-sarreraren itzulketak (Aplikatzeko dauden gastuak)	-1.230	-1.230
Aurrekontuz kanpoko gastuak	15.070	13.576
+ Diruzaintzako funts likidoak	30.500	-39.627
= Diruzaintzako gerakina, guztira	-68.202	-58.365
Finantzaketa atxikia duten gastuen ondoriozko diruzaintzako gerakina		
Baliabide atxikien ondoriozko diruzaintzako gerakina		
Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina	-68.202	-58.365

VI. IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK.

Ondotik, kudeaketaren arlo aipagarrien arabera sailkaturik, Ganberaren iritziz udalak bere antolamendu-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne kontrola hobetzeko hartu beharko lituzkeen neurriei buruzko gomendio nagusiak emango ditugu.

VI.1. ALDERDI OROKORRAK

2008ko apirilaren 17an, hasierako onespena eman zitzaion 2008rako aurrekontuari, legezko izapideak bete ondoren. 2008ko abuztuaren 4an eman zitzaion behin betiko onespena.

Udalaren eta haren erakunde autonomoen Kontu Orokorraren edukia, funtsean, aurrekontua likidatzeko espedienteari dagokio, eta eranskinean ez da ageri kontabilitate-entitate guztien kontu bateraturik. Balantzea eta emaitzen kontua ez dira hartan jaso.

“Fernando Calahorra” Musika Eskolaren gastuen aurrekontuaren likidazioari dagokionez, atzeman dugu ez dela kredituen muga-izaera errespetatu langileen eta inbertsioen kapituluak betetzerakoan.

Udalaren eta Musika Eskolaren 2008ko abenduaren 31ko diruzaintzako gerakinak negatiboak dira; hori dela eta, udal kontu-hartzaileak, kontu orokorrari erantsitako txostenean, adierazten du zein diren diruzaintza-gerakin negatiboa duen aurrekontu baten likidazioan hartu beharreko neurriak, Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeko 230. artikulua arabera.

Bestalde, banku-entitateek emandako informazioa aztertuta, atzeman dugu kasuren batean

aurreikusita dagoela funtsak banakako sinadura bakar batekin erabili ahal izatea.

Hona gure gomendioak:

- *Aurrekontua indarreko legeetan ezarritako epeetan onetsi behar da, udalaren kudeaketa ekonomiko eta finantzariako tresna gisa erabili ahal izateko.*

- *Kontu Orokorra osatzea Nafarroako Toki Administrazioarako Kontabilitateari buruzko 272/1998 Foru Dekretuan aurreikusitako espediente eta eranskinekin, aplikazio informatikoak sortzen dituen arazoei konponbidea emanaz.*

- *Kontrolak ezarri behar dira, baimendutako kredituen izaera mugatzaile eta loteslea bete dadin ziurtatzeko modukoak, zeren eta lotespen-poltsak gainditu baitira behar diren aurrekontu-aldaketak onetsi gabe.*

- *Egoeraren balantzearen kontusailtako kontabilitate-saldoak berrikusi eta, kasua bada, erreregulariztea.*

- *Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeko 230. artikulua ezartzen dituen neurriak aplikatzea, diruzaintzako gerakin negatiboko aurrekontua kitatzeko.*

- *Sinadura mankomunatuak ezartzea, udalaren kontu guztien funtsak erabili ahal izateko.*

VI.2. UDALEKO LANGILE-GASTUAK

Langileriaren kapituluan aitortutako betebeharrak 961.952 euro egiten dute; hau da, 2008an aitortutako gastu guztien ehuneko 21. Ehuneko 100 exekutatu dira, eta, 2007. urteko ekitaldiarekin alderatuta, ehuneko 4 egin dute gora.

Hona hemen haien azalpen banakatua:

	Aitortutako betebeharrak
10 Goi karguak	38.504
12 Funtzionarioak	205.283
13 Langile kontratudunak	369.870
16 Enplegu-emailearen kargurako kuotak, prestazioak eta gizarte-gastuak	348.295

Udalaren 2008. urterako plantilla organikoan 17 lanpostu daude. Hasiera batez, 2008ko apirilean onetsi zen, eta haren behin betiko onespina enplegu eskaintza publikoarekin batera argitaratu zen, 2008ko abuztuaren 11n.

Gastu horien gainean eta udal eskoletako atezain lanpostua oposizio bidez betetzeko espedientearen gainean eginiko azterketatik, ondorioztatzen da egoki bete direla arau indardunak.

Espedientea	Mota	Prozedura	Adjudikazioa
Jubilatuen etxeko jatorduen zerbitzua	Laguntzarako kontratua	Negoziatua, Europar Batasuneko publizitaterik gabekoa	10.978

Egindako azterketatik ondorioztatzen da ezen, orokorrean, espedientearen izapidetzea kontratu-ei buruzko legeak betez egin dela eta berrikusitako gastuak onetsita daudela, kontu-hartzaitzak aztertuta eta zuzen kontabilizatuta. Alabaina, badago zerbitzuen eta aholkularitzaren errentamendu kontratu bat, 1997an esleitua, zeinak gainditu baitu arauetan finkatutako gehieneko indarraldia.

Hona gure gomendioa:

- *Zerbitzuen eta aholkularitzaren errentamendu kontratua egokitzea kontratazioari buruzko indarreko arauari.*

VI.3. ONDASUN ARRUNTETAKO ETA ZERBITZUETAKO GASTUAK

Ondasun arrunten eta zerbitzuen erosketek 1.084.902 euro egin dute 2008an; haien ehuneko 99 exekutatu da. Kapitulu honek gastuen aurrekontuko guztizkoaren ehuneko 24 egiten du, eta ehuneko 5 egin du gora 2007. urtetik.

Kapitulu horretako gastuen lagin bat aztertu dugu. Horien artean, ekitaldi honetan esleitutako hurrengo kontratazio espedienteak sartzen da:

VI.4. INBERTSIOAK

Ekitaldian eginiko inbertsioek 1.918.588 euro egiten dute; horrek esan nahi du behin betiko aurrekontuaren ehuneko 59 bete dela; ez da egin industrialdea egokitzeko aurreikusita zegoen 1.000.000 euroko gastua.

Kapitulu honek ekitaldian aitorturiko betebeharrak guztien ehuneko 42 egiten du, eta ehuneko 98 egin du gora 2007. urtearekin alderatuta.

Honakoak dira jarduera garrantzitsuenak: udal pilotalekua (512.299 euro); udaletxea eraberritzea (400.156 euro); 0-3 urteko ikastetxea handitzea (266.193 euro) eta udal igerilekuak (220.339 euro).

Kapitulu horretako gastuen lagin bat aztertu dugu, ondoko kontratazio-espedienteak barne:

Espedientea	Mota	Prozedura	Adjudikazioa (BEZa kenduta)
0-3 urteko haur hezkuntzako ikastetxea zabaltzea	Obra	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik beheiti	196.168
Udaletxea eraberritzea	Obra	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik beheiti	362.838
Udal pilotalekua.	Obra	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik beheiti	384.146
Igerileku-ontziak konpontzea	Obra	Negoziatua, Europar Batasuneko publizitaterik gabekoa	173.182
Crucero Ancho kalea zolaberritzea eta euri-uren sarea egitea	Obra	Negoziatua, Europar Batasuneko publizitaterik gabekoa	73.883
Baranda metro batzuk	Hornidura	Negoziatua, Europar Batasuneko publizitaterik gabekoa	6.897
Bi unitateren ekipamendua, 0-3 urteko haur hezkuntzako ikastetxea zabaltzeko	Hornidura	Negoziatua, Europar Batasuneko publizitaterik gabekoa	12.919
Altzairu galbanizatuzko seinaleak	Hornidura	Negoziatua, Europar Batasuneko publizitaterik gabekoa	5.175
Citroen Xsara Picasso ibilgailua	Hornidura	Negoziatua, Europar Batasuneko publizitaterik gabekoa	11.574

Aztertutako lagina ikusita, ondorioztatzen dugu ezen, oro har, espedienteak kontratuei buruzko legeen arabera izapidetu direla.

VI.6. INBENTARIOA-IBILGETUA

Udalaren 2007ko otsailaren 5eko Osoko Bilkurak ondasunen eta ondarearen inbentarioa onetsi zuen: 52.988.368 euroan baloratu zen.

Hona gure gomendioak:

- *Altak eta bajak kontabilizatzeko prozedurak definitu eta ezartzea, eta ibilgetuaren dokumenta-*

zioa artxibatzea kontu horiei aplikatzekoak zaizkien kontabilitate-irizpideei jarraituz.

- *Udal ondasunak –jabari publikokoak, ondarekoak eta herri ondasunak– eskrituretan jaso eta erregistratzeko prozesua osatzea.*

VI.7. AURREKONTUKO DIRU-SARRERAK

Udalaren aitortutako eskubideak, 2008an, 4.386.786 eurokoak izan dira. Ehuneko 42 egin dute gora 2007ko ekitaldiarekin alderatuta. Honako kontzeptuak azaltzen dira:

	2008	2007	% Aldak. 08/07
Zuzeneko zergak	676.309	637.356	6%
Zeharkako zergak	117.144	530.648	-78%
Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrerera batzuk	502.681	432.370	16%
Transferentzia arruntak	1.059.589	1.001.397	6%
Ondare dirusarrerak eta herri ondasunen aprobetxamendukoak	424.327	181.531	134%
Inbertsio errealak besterentzea	4.700	166.800	-97%
Kapital-transferentziak	1.042.036	146.113	613%
Pasibo finantzarioak	560.000	0	
Diru-sarrerak, guztira	4.386.786	3.096.215	42%

Eragiketa arruntengatik diru-sarrerak, 2.780.051 eurokoak, egonkor jarraitzen dute 2007ko ekitaldikoekin alderatuta, baina nabarmenezkoa da zeharkako zergek (EIOZ) ehuneko 78 egin dutela behera eta herri-lurren aprobetxamenduen ondoriozko diru-sarrerak, berriz, gora egin dutela. Transferentzia arruntek guztizko diru-sarreen ehuneko 24 egiten dute.

Kapitaleko diru-sarrei dagokienez –guztira aitorturiko eskubideen ehuneko 37 egiten dute– nabarmen egin dute gora iraganeko ekitaldian, eta 2007an 312.913 eurokoak izatetik 2008an 1.606.736 eurokoak izatera iragan dira. Igoerak kapitaleko transferentzien kapituluetan biltzen dira: inbertsioak finantzatzeko 1.042.035 euroko eskubide aitortuak ageri dira, eta 560.000 euroko pasibo finantzarioak.

Azken horiek dagozkio zenbateko horretako mailegu bat kontratatu izanari. Izan ere, hautapen prozesu bat egin ondoren, udaleko Osoko Bilkurak mailegu hura 2008ko abenduaren 12an onetsi zuen, eta hiru egun geroago jakinarazi zitzaion

finantza-entitateari. Alabaina, mailegu horren poliza ez zen 2009ko urtarrilaren 2ra arte sinatu.

Hona gure gomendioa:

- *Behar diren jarduketak egitea, zorpetzetik heldu diren diru-sarrerak aurrekontuan aitortzerakoan, aitortutako hori bat etor dadin entitatearen diru-zaintzan izandako diru-sarrekin, 272/1998 Foru Dekretuan aurreikusitakoari jarraituz.*

VI.8. GORABEHERAK

Udala, adierazi digutenaren arabera, bost prozedura judizialean dago sarturik. Horietako bati buruzko epaia 2009ko otsailean izan zen, eta udala behartzen du 161.457 euro ordaintzera, kalte-galerengatik ordain gisa.

VI.9. HIRIGINTZA

Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeak hiru urteko epea finkatzen zuen, 2006ko apirilera

artekoa, indarreko plangintzak homologatu eta egokitzeko.

2008ko abenduaren 31n, Alesbesen indarrean zegoen planeamenduko tresna 1992an onetsitako arau subsidiarioak ziren.

Hona gure gomendioa:

- *Lurralde Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legean (LAHFL) ezarritakoari egokitzea.*

VI.10. "VIRGEN DEL PORTAL" ZAHARREN EGOITZA

Zaharren egoitzaren 2008ko ekitaldirako hasierako aurrekontua 716.263 eurokoa da eta behin betikoa, berriz, 909.199 eurokoa. Gastuetan, betetze-maila ehuneko 99koa da eta diru-sarreretan, berriz, ehuneko 101ekoa.

Aitortutako betebeharrak 903.014 eurokoak dira. Horietatik, 748.196 euro eragiketa arruntengatiko gastuei dagozkie, eta 154.818 euro, berriz, kapitaleko eragiketei; kasu horretan, inbertsioei. Eragiketa arruntengatiko gastuetan, langile-gastuak ehuneko 72 dira, eta ondasun arruntan eta zerbitzuen erosketak, berriz, ehuneko 28.

Ekitaldian aitorturiko diru-sarrerak 916.554 milioi eurokoak izan ziren. Eragiketa motari erreparatuta, eragiketa arruntengatiko diru-sarrerak 703.618 eurotan egin dute gora. Diru-sarreretatik, 643.420 euro kuotengatiko diru-sarerenak dira eta 60.000 euro, berriz, udalaren transferentzia arruntak. Kapitaleko eragiketetatik -212.936 euro egin dute-, nabarmentzekoa da 150.000 euroko diru-sarrera, finantza-entitate batekin egindako mailegu batetik heldu dena.

Diru-sarrera arruntak, udalaren 60.000 euroko ekarpena gorabehera, ez dira nahikoak izan ekitaldiko gastu arruntak finantzatzeko. Hori dela eta, 44.578 euroko aurrezki garbi negatiboa dauka.

"Virgen del Portal" zaharren egoitza erakunde autonomoa, 2004ra arte, Hermanas de la Caridad de Santa Ana erakundeak kudeatu zuen. Haiek joan ondoren, langile tituludunek kudeatzen dute.

Kudeaketan eginiko aldaketa horrek berarekin ekarri zuen egoitzaren gastu-egiturak gora egitea, eta horren ondorioz udalak hura mantentzeko ekarpen handiagoak egin behar izan ditu.

Ondoren ematen dugu 2003tik 2008ra bitarteko ekitaldietako aurrekontu-likidazioaren alderaketa-taula:

EKO.	GASTUAK	2003	2004	2005	2006	2007	2008
1	Langileria-gastuak	263.048	323.000	475.317	600.272	504.012	541.502
2	Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak	152.070	157.018	193.559	209.809	208.160	199.925
3	Finantza-gastuak	323	821	596	2.116	2.425	6.769
6	Inbertsio errealak	18.471	73.244	8.174	3.382	0	154.818
	Gastuak, guztira	433.912	554.083	677.646	815.579	714.597	903.014

EKO.	DIRU-SARRERAK	2003	2004	2005	2006	2007	2008
3	Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	396.652	416.597	530.821	594.789	611.833	643.420
4	Transferentzia arruntak	19.652	46.922	137.135	220.211	80.380	60.000
5	Ondarezko diru-sarrerak eta herri-lurren aprob.	160	43	3	3	2	198
7	Administrazio orokorrak entitateari transferitutakoa	66.113				288	62.936
8	Aktibo finantzarioak	3.065	3.065	3.065			
9	Pasibo finantzarioak						150.000
	Diru-sarrerak, guztira	485.642	466.627	671.024	815.003	692.503	916.554

Aldi horretako aurrekontuaren likidazioa aztertuta, honako alderdi azpimarragarriak nabarmendu nahi ditugu:

• Langile gastuak

Gastu horien bilakaera 2003tik 2008ra bitarteko ekitaldietan:

Kontzeptua	2003	2004	2005	2006	2007	2008
Administrazioko langileak	12.875	17.441	18.206	19.950	19.181	19.206
Langile finkoak	145.823	162.179	248.042	336.735	243.272	234.388
Administrazioko eta zuzendaritzako langileak		9.927	44.588	38.639	41.240	38.174
Aldi baterako langileak	5.773	38.128	64.945	57.815	71.994	108.231
Karitatearen ahizpen soldatak	38.877	22.646				
Begiraleentzako lansaria	7.672	4.800	4.598	7.062	3.677	4.793
Ile-apainketa	2.868	2.380	3.266	4.294	3.870	3.637
Podologia			865	932	1.140	505
Zaintzaileak - ospitalea			1.661			84
Zenbait egoiliarrentzako zerbitzuak		162				
Enpresaren gizarte segurantzak	47.775	63.521	84.140	130.387	114.947	126.983
Langileen polizaren aseguruak	1.384	1.816	1.540	1.602	1.665	2.844
Langileen osasunaren zaintza (Fremap)			3.464	2.856	3.026	2.657
Langile-gastuak, guztira	263.047	323.000	475.317	600.272	504.012	541.502

2003ko ekitaldiko langile-gastuak oinarri gisa hartuz gero, hura izan baitzen karitatearen ahizpek kudeaketa osoa egin zuten azken urtea, atzematen da 2005ean gastu horiek nabarmen egin zute-

la gora, eta gora egite horrek 2006an jarraitzen duela, 2003ko gastuen halako bi egiteraino. 2006ko irailean, egoitzako zuzendaria ordeztu zen -2004tik zegoen karguan-.

	2003	2004	2005	2006	2007	2008
2003ko oinarrizko adierazlea	100	123	181	228	192	206

2007an, egoitzako batzarrak zenbait neurri hartu ondoren eta zuzendaritza berriarekin, langile-gastuek ehuneko 16 egin zuten behera (96.760 euro), 2006ko ekitaldiarekin alderatuta.

• Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak

Kapitulu horretan 2003tik 2008ra guztira aitortutakoak honenbeste egiten du:

	2003	2004	2005	2006	2007	2008
Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak	152.070	157.018	193.559	209.809	208.160	199.925
2003ko oinarrizko adierazlea	100	103	127	138	137	131

2005eko gastuaren hazkundera, 2006an ere handitu zena, nabarmentzekoa izanda ere, ez da iristen langile-kapituluan erregistratutako aldaketara. Kontusailen azterketatik honakoa nabarmendu behar da:

– “Konponketak, mantentzea eta kontserbazioa” kontusailak iguera handia izan zuen 2004an, 2005ean eta 2006an.

– Garbiketarako produktuak: 2006an, aurreko urteetan baino erosketa gehiago egin ziren; itxuraz, horretarako arrazoirik gabe. Hori dela eta, pro-

duktuen stock handi bat sortu zen hurrengo ekitaldirako.

– Ikuztegi-zerbitzua: Gastu horrek pixkanaka egin du gora 2005ean eta 2006an; 2007an, berriz, 2005eko mailetara jaitsi da.

• Udalak zaharren egoitzari eginiko transferentzia arruntak.

Esan bezala, kudeaketan izandako aldaketak udalari ekarri zion ekarpen handiagoak egin behar izatea, 2006ko ekitaldian 220.211 euroko kopurura iristeraino.

	2003	2004	2005	2006	2007	2008
Transferentzia arruntak	19.652	46.922	137.135	220.211	80.380	60.000
2003ko oinarrizko adierazlea	100	239	698	1.121	409	305

Udalaren transferentzia horiek egin arren, diru-sarrerara arruntak, 2006an izan ezik, ez dira nahikoak izan gastu arruntak finantzatzeko. Aurrezki garbiko honako zenbatekoak lortu dira:

	2003	2004	2005	2006	2007	2008
Diru-sarrera arruntak	396.812	458.640	667.759	815.003	692.214	703.618
Ohiko gastuak	415.440	480.838	669.472	812.196	714.597	748.196
Aurrezki garbia	-18.628	-22.198	-1.713	2.807	-22.383	-44.578

Egoera hori baliagarria da zaharren egoitzaren urtez urteko diruzaintzako gerakin negatiboak esplikatzen. Gerakin hori, 2008ko abenduaren 31n, 58.350 euro negatibokoa da.

Datozen ekitaldietan, aurrezki garbiak jasan beharko du, baita ere, 2008an sinatutako 150.000 euroko maileguaren zama finantzarioa. Horri diruzaintzako gerakin negatiboa gehituz gero, litekeena da neurri berriak hartu behar izatea egoitzari egonkortasun finantzarioa emateko.

Hona gure gomendioa:

• *Kudeaketa hobetzen eta gastua kontrolatzen jarraitzea, zaharren egoitzaren bideragarritasun ekonomikoa ziurtatu ahal izateko, kontuan izanda udalaren ekarpenen menpean dagoela.*

Txosten hau auditore M^a. Pilar Sola Mateos andreak, lan honen arduradunak, proposatuta egin da, araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2010eko uztailaren 19an

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas

1. ERANSKINA.- RATIOAK

Diru-sarrereren betetze-maila =	$\frac{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}}{\text{Behin betiko aurrekontua}}$	X 100
Gastuen betetze-maila =	$\frac{\text{Aitorturiko betebeharrak, guztira}}{\text{Behin betiko aurrekontua}}$	X 100
Kobrانتzen betetzea =	$\frac{\text{Kobraketak, guztira}}{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}}$	X 100
Ordainketen betetzea =	$\frac{\text{Ordainketak, guztira}}{\text{Aitorturiko betebeharrak, guztira}}$	X 100
Zorpetze-maila =	$\frac{\text{Finantza-zama (3. eta 9. kapituluak)}}{\text{Gastu arruntak (1. kapitulutik 5. kapitulura)}}$	X 100
Zorpetze-muga =	$\frac{\text{Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5. kapitulura) -}}{\text{Funtzionamendu-gastuak (1., 2. eta 4. kapituluak)}} \times 100$	X 100
Zorpetze-ahalmena =	Muga – Zorpetze-maila	
Aurrezki garbia	$\frac{\text{Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5. kapitulura) -}}{\text{Funtzionamendu- eta finantzatzio gastuak (1., 4. eta 9. kapituluak)}} \times 100$	
Langile indizea	$\frac{\text{Aitorturiko betebeharra, langileak (1. kapitulua)}}{\text{Aitorturiko betebeharrak, guztira}}$	X 100
Inbertsio indizea	$\frac{\text{Inbertsio-gastuak (6. eta 7. kapituluak)}}{\text{Aitorturiko betebeharrak, guztira}}$	X 100
Dirulaguntzekiko mendekotasuna	$\frac{\text{Transferentziengatiko aitorturiko eskubideak (4. eta 7. kapituluak)}}{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}}$	X 100
Biztanle bakoitzeko diru-sarrerak	$\frac{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}}{\text{Eskubideko biztanleria}}$	
Biztanle bakoitzeko gastuak	$\frac{\text{Aitorturiko betebeharrak, guztira}}{\text{Eskubideko biztanleria}}$	
Biztanle bakoitzeko gastu arruntak	$\frac{\text{Aitorturiko betebeharrak, guztira (1. kapitulutik 4. kapitulura)}}{\text{Eskubideko biztanleria}}$	
Zerga presioa edo tributu bidezko diru-sarrerak biztanleko	$\frac{\text{Zerga dirusarrerak (1., 2. eta 3. kapituluak)}}{\text{Eskubideko biztanleria}}$	
Biztanle bakoitzeko finantza-zama	$\frac{\text{Finantza zamak (3. eta 9. kapituluak)}}{\text{Eskubideko biztanleria}}$	

Fiskalizazio txostena, Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluaren 2009ko ekitaldiko kontuei buruzkoa, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko irailaren 6an eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluaren kontuei buruz egindako fiskalizazio txostena, 2009ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2010eko irailaren 6an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Fiskalizazio txostena, Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluaren 2009ko ekitaldiko kontuei buruzkoa, Comptos Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (18. or.).
- II. Fiskalizazioaren helburua eta norainokoa (18. or.).
- III. Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua (18. or.).
 - III.1. Definizioa eta eginkizunak (18. or.).
 - III.2. Kontseiluko kideak (19. or.).
 - III.3. Araubide ekonomiko finantzarioa eta aurrekontuen betetzea (19. or.).
 - III.4. Langileria (19. or.).
 - III.5. Arautegia (20. or.).
 - III.6. Ikus-entzunezkoen Kontseiluaren jarduerak (20. or.).
- IV. Iritzia (21. or.).
 - III.1. 2009ko urteko kontuak (21. or.).
 - III.2. Legezketasuna (21. or.).
- V. Urteko kontuetako egoera-orri finantzarioak (21. or.).
 - V.1. Aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria (22. or.).
 - V.2. Diruzaintzako gerakina (23. or.).
 - V.3. Balantzea (23. or.).
 - V.4. Emaizak-kontua (24. or.).

I. SARRERA

Nafarroako Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraikiz, Nafarroako Comptos Ganberak egin du Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluaren 2009ko kontuen erregulartasunaren fiskalizazioa.

Fiskalizazio-lan hau Comptos Ganberak 2010erako onetsitako jarduera programan sartu zen, eta auditoriako teknikari batek eta auditore batek osaturiko talde batek 2010eko ekainean egin zuen, betiere Comptos Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboan laguntzarekin.

Eskertu nahi dugu lan hau egiteko Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluko langileek eman diguten laguntza.

II. FISKALIZAZIOAREN HELBURUA ETA NORAINOKOA

Fiskalizazioaren helburua zen gure iritzia ematea ondokoen inguruan:

a. Ea Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluaren 2009ko kontuek fidelki islatzen ote duten, alderdirik behinetan, entitatearen 2009ko abenduaren 31ko ekonomia- eta finantza-egoera, aurrekontuaren likidazioa eta lorturiko emaitzak, eta orokorki onartuak diren kontabilitate-printzipio eta -arauei jarraituz prestatu ote diren.

b. 2009an, Ikus-entzunezkoen Kontseiluaren jarduerari aplikatzekoa zaion legedia bete den.

Lanaren norainokoari dagokionez, fiskalizazioaren helburuaren betetzeko behar adinako ebidentzia lortzeko behar diren proba eta prozedura guztiak egin dira.

Metodologiari dagokionez, Espainiako Kanpo Kontrolerako Organo Publikoaren Koordinazio Batzordeak onetsitako "sektore publikoko auditoriako printzipio eta arauak" aplikatu dira, Comptos Ganbera honetako fiskalizazio-eskuliburuan garatutakoak.

III. NAFARROAKO IKUS-ENTZUNEZKOEN KONTSEILUA

III.1. DEFINIZIOA ETA EGINKIZUNAK

Ikus-entzunezkoen Kontseilua zuzenbide publiko entea da, nortasun juridiko propioa du, administrazio publikoekiko mendekotasunik gabe dihar-

du bere eginkizunetan, gaitasun osoarekin eta autonomia organiko eta funtzionalarekin.

Haren eginkizuna da Konstituzioko balio eta printzipioak bermatu eta sustatzea, eta, bereziki, aniztasunari, gazteriari eta haurrei ikus-entzunezkoen sektorean babesa ematea.

Gizarte komunikazioaren erabiltzaileen eskubiak bermatzeaz arduratzen den organo gisa,

zainduko du ikus-entzunezko hedabideen titulartatean gardentasuna egon dadin eta Nafarroan ikus-entzunezkoen sektoreko ekoizpenari, programazioari eta publizitateari buruzko legedia bete dadin, eta bitartekaritza-lana egingen du ikus-entzunezko industriaren interesen eta interes soziokulturalen artean.

Honakoak dira 2009an Nafarroan dauden ikus-entzunezko hedabideak:

IRRATIA	Zk.:
Gaikuntza-titulua duten frekuentzia modulatuak irratia-emisorak	20
Udalen irratia-emisorak, lizentzia administratiboa dutenak	9
Udalen irratia-emisorak, frekuentziaren erreserba dutenak	6
TELEBISTA	Zk.:
Lizentzia duten telebista-kanalak	9
Telebista digital autonomikoko bi emakida, bakoitza bi kanalekin (Canal 4 Navarra eta Canal 6 Navarra)	4
Tokiko telebista digitaleko kanalak (Popular TV – Iruña, Popular TV – Tuter, Popular TV – Tafalla, Popular TV – Lizarra, Popular TV – Zangoza)	5

III.2. KONTSEILUKO KIDEAK

Kontseilua zazpi kidek osatzen dute. Horietako bat lehendakaria da eta beste bat idazkaria. Kontseiluaren gobernu eta erabaki organoa Osoko Bilkura da, zeina kide guztiek osatzen baitute.

III.3. ARAUBIDE EKONOMIKO FINANTZARIOA ETA AURREKONTUEN BETETZEA

Ikus-entzunezkoen Kontseilua Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari aplikatzekoa zaion araubide ekonomiko finantzario beraren eta kontabilitate publikoko araubidearen menpe egonen da.

Era berean, haren jarduketa ekonomikoak eta aurrekontu jarduketak Nafarroako Ogasuneko Kontu-hartzailatza Nagusiaren kontrolaren menpe egonen dira.

Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluaren aurrekontua Nafarroako Aurrekontu Orokorretan sartzen da, eta haren urteko kontuak Nafarroako Kontu Orokorren zati bat dira.

Honakoak dira Ikus-entzunezkoen Kontseiluaren kontuen osagaiak: balantzea, aurrekontuaren likidazio-egoera, ekonomi eta ondare emaitzako kontua eta oroitidazkia.

Ikus-entzunezkoen Kontseiluaren 2009ko aurrekontua 645.000 eurokoa izan zen.

2009an zehar, 625.810 euroko diru-sarrerak sortu ziren; 2008an baino ehuneko 1 gutxiago, hain zuzen ere. Diru-sarrera horiek ia guztiz bat datoz Nafarroako Gobernuaren transferentzia arruntekin eta kapitaleko transferentziekin.

Funtzionamendu gastuak finantzatzeko Nafarroako Gobernutik 2009an jasotako transferentzia arruntek 600.000 euro egiten dute. Horietatik, 95.553 euro Foru Komunitateko Diruzaintzara itzuli dira.

2009an aitorturiko betebeharrak 530.257 euro egiten dute, 2008an baino ehuneko 4 gutxiago, hain zuzen ere. Haien osaketari dagokionez, ehuneko 49 langile-gastuei dagozkie; ehuneko 43 ondasun arruntei eta zerbitzuei; ehuneko 5 inbertsioei, eta ehuneko 3 transferentzia arruntei.

III.4. LANGILERIA

Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluaren zerbitzuko langileak Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileei aplikatzekoak zaizkien lege berberaren menpe daude.

Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluaren 2009rako plantilla organikoak, 2009ko otsailaren 24ko Osoko Bilkuraren erabakiaz onetsi eta urte bereko apirilaren 27ko NAO n argitaratu zenak, honako lanpostuak biltzen ditu:

Lanpostua	Kopurua:	Maila	2009/12/31ko egoera administratiboa
Funtzionarioak:	5		
• APT (arlo juridikoa)	2	A	Lanpostu hutsak
• Kazetaria	1	A	Aktiboa
• Erdi mailako teknikaria	1	B	Lanpostu hutsa
• Administrari laguntzailea	1	D	Lanpostu hutsa
Aldi baterako langileak (izendapen libreak):	2		
• Lehendakariaren idazkaria	1		Behin-behineko lanpostuak
• Kudeatzailea	1		Behin-behineko lanpostuak
Guztira	7		

Lanpostu hutsak, erdi mailako teknikariarena izan ezik, kontratupeko langileek bete zituzten 2009an.

2009rako lan eskaintza publikoak, 2009ko ekainaren 18ko Osoko Bilkuraren erabakiaz onetsi eta 2009ko abuztuaren 14ko NAO argitaratu zenak, arlo juridikoko bi APT lanpostuak jaso zituen.

2009an, jabetzan bete zen kazetari lanpostua eta arlo juridikoko bi ATP lanpostuetarako deia egin zen.

III.5. ARAUTEGIA

Ikus-entzunezkoen Kontseilua, besteak beste, honako araudiaren menpean dago:

Uztailaren 5eko 18/2001 Foru Legea, Nafarroako ikus-entzunezkoen jarduera arautu eta Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua sortzen duena. Foru lege hori honakoen bidez aldatu zen: ekainaren 6ko 17/2002 Foru Legea eta martxoaren 7ko 3/2005 Foru Legea, Espainiako Irrati-Telebistaren Nafarroako Kontseilu Aholku-emailea sortu eta erregulatzeari buruzko martxoaren 4ko 2/1985 Foru Legea aldatzen duena.

Estatutu organikoa eta funtzionamendukoa.

6/2006 Foru Legea, ekainaren 9koa, Kontratu Publikoari buruzkoa.

Apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legea, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzkoa.

2009ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 24ko 21/2008 Foru Legea.

II.6. IKUS-ENTZUNEZKOEN KONTSEILUAREN JARDUERA.

Ikus-entzunezkoen Kontseiluak, bere eginkizunak betez, 2009an honako jarduerak egin zituen, besteak beste:

Ikus-entzunezko hedabideetan legediaren betetzea zaintzeko eginkizunari dagokionez, 36 txosten egin zituen telebistetako programazioaren jarraipenari buruz; 19 txosten irratietako programazioaren jarraipenari buruz; 10 txosten programazioen edukiari buruz, eta 4 txosten publizitatearen edukiei buruz.

Herritarren eta Nafarroako ikus-entzunezko hedabideen arteko harreman zuzena babestearen arloan, 94 erreklamazio kudeatu zituen, Ikus-entzuleen Defentsarako Bulegoan aurkeztuak; sei txosten egin zituen adingabeak babestearen arloan, eta "Familia eta ikus-entzunezko pantailak" kanpaina bultzatu zuen, 31 saiotan zehar gauzatu ziren prestakuntza-mintegien bitartez (haietan, Nafarroako 434 familiak hartu zuten parte).

Nafarroako ikus-entzunezko hedabideek eskainitako edukien kalitatea dela-eta Ikus-entzunezkoen Kontseiluak eginiko ekarpenari dagokionez, 2009an "Nafarroako ikus-entzunezko edukien kalitatea zaintzeko koerregulazioko kodea 2010" izenekoa sinatu zuten, batetik, Ikus-entzunezkoen Kontseiluak, eta bestetik, Nafarroako Foru Komunitatean emititzeko baimen administratiboa duten hiru telebista erregionalek; "Haurrak babesteko ordutegian emandako edukien kalitatearen agiria" egin zuen, eta azterlan bat egin zuen telebistako operadore erregionalen barne-aniztasunari buruz eta albistegietan sartutako albisteen gaiei eta eremu geografikoari buruz.

2009an, honakoak izan ziren, besteak beste, ikus-entzunezkoen sektorea bultzatzeko eginiko jarduerak: "Nafarroako Ikus-entzunezkoen Barometroa 2008" izenekoa aurkeztea (foru erkidegoko ikus-entzunezko hedabideei buruzko iritzi publikoaren azterlan bat zen) eta Nafarroan lurteko telebista digitala behin betiko ezartzen laguntzeko jarduerak (zabalkunderako bi agiri egitea, Nafarroako udal guztietan inkesta bat egin, lurteko telebista digitalaren seinalea hartzeko arazoak ezagutze

aldera, eta Nafarroako lurreko telebista digitalaren foroan parte hartzea, besteak beste).

IV. IRITZIA

Ikus-entzunezkoen Kontseiluaren urteko kontuen erregulartasunari buruzko fiskalizazioaren emaitza gisa –kontu horiek haren ardurapean egin ziren–, honakoa da gure iritzia:

III.1. 2009ko URTEKO KONTUAK

Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluaren 2009ko urteko kontuek aplikatzekoak diren printzipio eta kontabilitate-arauen arabera islatzen dituzte, alderdirik behinenean, 2009ko abenduaren 31ko ondare- eta finantza-egoera, ekitaldi horretako aurrekontuaren likidazioaren egoera eta 2009ko itxierako ondare-emaitza ekonomikoa.

III.2. LEGEZKOTASUNA

2009an, Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluaren jarduera ekonomiko eta finantzarioa, oro har, legezkotasun printzipioari jarraikiz egin da.

Txosten hau auditore M. Asunción Olaechea Estanga andreak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna, araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2010eko irailaren 1ean

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas

V. URTEKO KONTUETAKO EGOERA-ORRI FINANTZARIOAK

Ondoren, 2009ko ekitaldiko urteko kontuak osatzen dituzten egoera-orri finantzarioetako batzuk ematen ditugu.

V.1. AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN EGOERA-ORRIA

GASTUEN AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Izena	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Aitorturiko betebeharrak	Betetzearen %	Ordainketak	Aitorturiko guzt. gain. ordainketa-portzentajea	Ordaintzeke dagoena
1. Langileria-gastuak	326.600	326.600	261.104	% 80	256.199	% 98	4.905
2. Gastu arruntak, ondasun eta zerbitzuetan	300.000	275.000	229.768	% 84	201.014	% 87	28.754
3. Finantza-gastuak	150	150	149	% 99	149	% 100	0
4. Transferentzia arruntak	15.000	15.000	13.853	% 92	13.853	% 100	0
5. Inbertsio errealak	3.250	28.250	25.383	% 90	883	% 3	24.500
Gastuak, guztira	645.000	645.000	530.257	% 82	472.098	% 89	58.159

DIRU-SARREREN AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Kontzeptua	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Aitorturiko eskubideak	Betetzearen %	Kobrantzak	Aitorturikoaren gaineko portzentajea
4. Transferentzia arruntak	641.750	641.750	600.000	% 93	600.000	% 100
5. Ondare diru-sarrerak	0	0	410		410	% 100
7. Kapital-transferentziak	3.250	3.250	25.400	% 781	25.400	% 100
Diru-sarrerak, guztira	645.000	645.000	625.810	% 97	625.810	% 100

AURREKONTU EMAITZA

Kontzeptuak	Aitorturiko eskubide garbiak	Aitorturiko betebeharrak garbiak	Zenbatekoen arteko aldea
1. Eragiketa ez-finantzarioak (1-7 kapituluak)	625.810	530.257	95.553
2. Eragiketarak finantza-aktiboekin (8. kapituluak)	0	0	0
I. Ekitaldiko aurrekontu-emaizta (1+2)	625.810	530.257	95.553
II. Finantza-pasiboen aldaketa garbia	0	0	0
III. Ekitaldiko aurrekontu-saldoa (I + II)	625.810	530.257	95.553
(+) Gastaturiko kredituak, diruzaintzako gerakinarekin finantzaturikoak			0
(-) Finantzaketaren desbideratze positiboak			0
(+) Finantzaketaren desbideratze positiboak			0
IV. EKITALDIKO FINANTZAKETAREN SUPERABITA			95.553

V.2. DIRUZAINZAKO GERAKINA

	Kontua	Zenbatekoa	
+ 1. Ekitaldiaren amaieran kobratzeke dauden zordunak			0
Aurrekontu arrunteko diru-sarrereren aurrekontukoak	430	0	
Aurrekontu itxietako diru-sarrereren aurrekontukoak	431	0	
- 2. Ekitaldiaren amaieran ordaintzeke dauden hartzekodunak			69.061
Aurrekontu arrunteko diru-sarrera aurrekontukoak	400	58.159	
Aurrekontu itxietako diru-sarrera aurrekontukoak	401	0	
Aurrekontuz kanpoko beste eragiketa batzuetakoak		10.902	
Ogasun Publikoa hartzekodun, kontzeptu fiskalengatik	475	10.125	
Gizarte Segurantza hartzekodun	477	777	
+ 3. Ekitaldiaren amaieran diruzaintzan dauden funts likidoak	57	164.614	164.614
- 4. Finantzaketa atxikia duten gastuei atxikitako diruzaintza-gerakina		0	0
= 5. Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina (1 -2+3 -4)			95.553
= Diruzaintza-gerakina, guztira (1 -2 +3) = (4+ 5)			95.553

V.3. BALANTZEA

AKTIBOA

Kontua	Kontzeptua	2008	2009
	Ibilgetua	813.324,73	838.707,83
	Ibilgetu materiala	224.376,33	803.143,88
202	Eraikinak eta bestelakoak	132.472,71	685.857,16
203	Makinak, instalazioak eta tresnak	0	7.500
205	Altzariak eta tresneria	56.314,99	56.813,79
206	Informazioa prozesatzeko tresneria	31.986,23	48.986,23
208	Bestelako ibilgetu materiala	3.602,40	3.986,70
	Ibilgetu ez-materiala	35.563,95	35.563,95
218	Bestelako ibilgetu ez-materiala	35.563,95	35.563,95
	Azpiegituren eta erabilera orokorreko ondasunetan eginiko inbertsioak	553.384,45	0
2211	Azpiegituren eta erabilera orokorreko ondasunetan eginiko inbertsioak (atxikipenean jasotako egoitza)	553.384,45	0
	Zordunak	0,00	0
430	Aitorturiko eskubideen zordunak. Aurrekontu arrunta.	0,00	0
	Kontu finantzarioak	147.843,33	164.613,82
570	Kutxa	256,13	281,70
571	Bankuak eta kreditu-entitateak	147.587,20	164.332,12
	Aktiboa, guztira	961.168,06	1.003.321,65

PASIBOA			
Kontzeptua		2008	2009
Ondarea eta erreserbak		813.324,73	838.707,83
100	Ondarea	259.940,28	285.323,38
101	Adskribatutako ondarea	553.384,45	553.384,45
1291	Atxikitako funtsak, aplikatzeke daudenak	0,00	
Epe laburreko zorrak		147.843,33	164.613,82
400	Aurrekontu arruntean aitorturiko betebeharretak hartzekodunak	57.202,80	58.158,69
401	Aurrekontu itxian aitorturiko betebeharretak hartzekodunak	0,00	0
	Zorrak entitate publikoekin	90.640,53	106.455,13
475	Ogasun Publikoa hartzekodun, kontzeptu fiskalengatik	8.373,24	10.125,54
476	Ogasuna hartzekodun, kredituen itzulketagatik	81.462,34	95.552,67
477	Gizarte Segurantza hartzekodun	804,95	776,92
Pasiboa, guztira		961.168,06	1.003.321,65

V.4. EMAITZA-KONTUA.

EMAITZA ARRUNTEN KONTUA.

Zor		Hartzeko	
319.410,38	Langileria-gastuak	Ondareko diru-sarrerak	409,77
171.461,56	Kanpoko lan, hornikuntza eta zerbitzuak	Kapital-transferentziak	25.400
148,73	Finantza-gastuak	Transferentzia arruntak	600.000
13.853,33	Transferentzia arruntak		
504.874	Gastuak, guztira	Diru-sarrerak, guztira	625.809,77
120.935,77	Etekin garbia, guztira		